# EKOIZTU

del 26 de octubre del 2023

al 13 de enero del 2024

Alba de la Portilla
**Sweet INNOCENCE**

Anne Aramendia
***Fanservice***

Pr0t0c0lectiv0
**Resonancias, una simulación del contacto**

Durante la primera mitad del 2023, Elisa Arteta y Nerea de Diego hemos realizado un acompañamiento a las residencias Ekoiztu, en las que Alba de la Portilla, Anne Aramendia y Pr0t0c0lectiv0 han desarrollado los proyectos que ahora se muestran.

Entendemos el acompañamiento como una forma de facilitar que los proyectos se lleven a cabo no solamente desde el punto de vista material, sino también desde el intelectual y el afectivo. Con este propósito, hemos querido ofrecer una mirada externa que dialogue, ponga en cuestión y proponga estrategias de reflexión y metodológicas para un hacer artístico que acoja también un aprendizaje individual y colectivo, tanto de lxs artistas como de nosotras, las acompañantes. Nos hemos dejado llevar por sus recorridos durante estos meses de trabajo en un proceso que también ha significado una exploración sobre cómo acompañar.




*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla




*Fanservice*, Anne Aramendia



*Resonancias, una simulación del contacto,*
Pr0t0c0lectiv0

Me invitaron a acompañar los procesos de Alba y de Anne y estaba nerviosa. Aunque, por un lado, su obra no me es ajena y tiene muchos hilos de los que podría tirar, por otro, siento que hay algo que se me escapa en sus trabajos, y en el de otras muchas artistas de su generación, y eso me hacía dudar de que mi acompañamiento pudiera serles de ayuda. Precisamente es esa parte del arte que no llegamos a comprender la que nos atrae, nos descoloca, nos obliga a mirar y nos interpela; pero a mí me llamaron para aportar desde mi experiencia y en ese punto aparece la fragilidad y las dudas.

La primera sesión fue con Alba de la Portilla. Es posible que ella también estuviera algo nerviosa, pero la sensación fue buena. Su taller estaba lleno de objetos, imágenes y piezas en proceso. Alba conversaba tranquila, pausada, pensando qué decir y hablando a través de imágenes que me mostraba en carpetas del ordenador o en libros o cajas. Estaba en un buen momento del proyecto, con muchos caminos abiertos, muchas decisiones aún por tomar, pero muchas ideas firmes. Salieron cuestiones que ni ella ni yo sabíamos que estaban. Me habló de su familia, de su madre, sus tías y tíos, abuelo… De algún modo, el punto al que Alba se agarra para coger impulso es todo un imaginario, de los años 70, 80 y 90, al que ella accede a través de fotografías familiares, decoraciones de las habitaciones juveniles de sus parientes, objetos, revistas, DVDs y otros objetos. Este mecanismo funciona como una búsqueda identitaria, de buscar en las raíces, para tratar de conocer, de conocerse.

Hablamos de pertenencia, de la necesidad de pertenecer en la adolescencia, a través de pósteres de ídolos, cantantes, modelos, actrices y actores, pero también a través de la moda y el cuerpo. Recuerdo que hablamos de que su familia había emigrado a Navarra. De algún modo, a Alba los términos pertenencia y desarraigo le ocupan.




*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla



*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla

Es interesante que expongas tu propio nerviosismo ante esta tarea que nos han propuesto, me ha hecho darme cuenta de que yo también tuve un momento de inseguridad. Al principio estaba emocionada con esta labor, puesto que me parece muy interesante aportar una percepción externa a los proyectos de otrxs artistas y, en este caso, más aún, tratándose de un proceso de arte sonoro, que es un campo que me fascina. Pero precisamente porque el estudio sonoro no es exactamente mi lugar, surgió mi propio cuestionamiento sobre si era capaz de acompañar el proceso de Pr0t0c0lectiv0. Esta sensación se difuminó cuando me contagié de la energía e ilusión que el grupo transmitía de tener esta oportunidad de desarrollar su trabajo y de tener a alguien que les acompañara en el viaje.

Pr0t0c0lectiv0 es un colectivo integrado por Sonia Ciriza (diseñadora gráfica y artista), Miguel Ayesa (diseñador gráfico y artista), Germán Úcar (diseñador gráfico y músico) y Guillermo Mutiloa (músico y productor) que llevan unos años realizando proyectos artísticos. No es un grupo fijo, sino que sus integrantes van variando y su campo de acción es amplio: no se acogen a una sola disciplina, sino que exploran distintas herramientas para acercarse a los lugares que les interesan en cada momento. En este proyecto, *Resonancias, una simulación del contacto*, han estudiado la resonancia sonora a través de micrófonos y altavoces de contacto (que transmiten las ondas por medios materiales y no por el aire) colocándolos sobre distintos materiales. Tras la experimentación inicial, se han decantado por el uso de estructuras metálicas cilíndricas, que visualmente provocan una conexión con lo industrial y los modos de producción.

Una de las primeras conversaciones con el grupo tuvo que ver con los momentos de conflicto durante un proceso de creación. Esos bloqueos que surgen habitualmente son justamente los que despliegan un abanico de diferentes soluciones, y ahí es donde se pueden añadir nuevas capas de contenido y de conocimiento a lo que se está haciendo y, por tanto, también a tu propia experiencia y transformación a través del hacer artístico. Es decir, aquellos problemas que a veces nos frustran tanto a lxs artistas son los que permiten y fomentan la creatividad y la resolución, los que hacen que el arte emerja: una nueva estrategia, un nuevo detalle, una expansión de la percepción, un mecanismo diferente de hacer las cosas, de relacionarse, etc. Se trata de un desplazamiento en el que se descubre algo hasta entonces desconocido. Ese es el potencial político del arte, esos momentos que te ponen contra las cuerdas, aproximándote a tus miedos y puntos débiles, para poder superarlos y seguir hacia adelante.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

Lo que dices me lleva al proceso con Anne Aramendia. A Anne la pillé en pleno "momento bloqueo", que, cómo dices, no es algo negativo, sino que más bien es necesario para replantearnos cosas, dar giros, reflexionar o coger impulso. Anne estaba en un momento de crisis personal y también artística, ya que no había separación alguna entre ambas. Se encuentra en un proceso de despertenecer, de desarraigarse de la pintura, en la que ella se maneja con soltura y fluidez. Siente la necesidad de despojarse de su legado pictórico familiar, de trazar su camino, otro. Y en esa búsqueda que no controla y que incluso la paraliza, aparecen ejercicios interesantes. Hablamos de Ana Laura Alaéz, de la representación del género y de la sexualidad. Anne me habla de género no-binario, yo más bien la percibo autorrepresentándose como un cuerpo feminizado — y otra vez siento que hay cosas que se me escapan con las artistas más jóvenes, un cambio de perspectiva que no alcanzo y por eso me interesa —. El de Anne es un cuerpo que juega, que desafía, que se gusta, que se reafirma mediante el uso del maquillaje, de sostenes de cristal de Swarovski, picardías o velos de novia…

Del mismo modo que Alba aborda la dulce inocencia de un modo irónico en el título de su propuesta, *Sweet INNOCENCE*, Anne, en *Fanservice*, juega también a la representación de la inocencia, en un doble juego que no es inocente en absoluto y que, irremediablemente, recuerda a la imagen de Lolita de Nabokov.

“Cuando sueño que bajo por la calle dos de mayo hacia el bar Nervión y al llegar le soplo una hostia a A. y a C., no encuentro placer en que esto se celebre. Paso de que a la gente le parezca algo que alguien debía hacer. En plan, dios, ya era hora. Después de esto yo sueño que viene la policía y me detienen. Por cierto, en ese momento estoy guapísima. No busco aprobación, busco mearme fuera del tiesto. Perder los papeles. La convención está para mí en soportar y callar. Modo supervivencia. Y yo tengo ansias de vivir. No creo que el golpe suponga nada, ni A., ni C., ni la policía; el vestido rosa y las botas de serpiente sí. Podría cambiar a A. por un muñeco, no sería la primera vez. Quiero liarla y que hablen mal de mí. Quiero ser ejecutora de algo malvado. Vivir la culpabilidad por fin, sabiendo que he hecho algo malo con la energía de un bofetón. Arrancarle la polla con los dientes a los dos y que por fin la gente respire tranquila porque después de eso ya no hay vuelta atrás para mí. Ya no seré la misma, pero tampoco arrancar pollas con los dientes será convención. No será mi show, ni tendré colas de hombres cis esperando a que les corte el pene. Nadie lo deseará nunca, yo lo haré porque no desean que sea yo quien lo haga. Seré constantemente la liadísima. Pero no seré Anne la liada, seré todos los días Anne la que la lió (como si todos los días fuera la primera vez que tomo consciencia del dolor y lo hago).”

Fragmento del texto *sobre un mal sueño*
Anne Aramendia, 2023



*Fanservice*, Anne Aramendia

También en el caso de Pr0t0c0lectiv0 ha habido un debate sobre ese despertenecer que mencionas, aunque, con otras palabras. Particularmente, Germán sentía una necesidad de no adscribirse al campo de la escultura, porque para él tiene una serie de connotaciones que no quería remover. Mientras que para Miguel no había ningún problema, en cambio, en denominar el trabajo como tal, a pesar de que la exploración sea, ante todo, sonora.

Al ser un colectivo, las percepciones e interpretaciones iban variando de unx integrante a otrx según dialogábamos sobre diferentes temas, y eso iba enriqueciendo el proceso. Es llamativo que, aunque a veces no se pusieran de acuerdo en cuestión de terminología, en la producción material no había demasiada disparidad de opiniones y el proceso ha sido muy fluido.

Al final todo tiene que ver siempre con la mirada y la interpretación personal que se proyecta en las cosas, y en muchas ocasiones se vuelve complicado universalizar una idea, un símbolo o un significado, porque cada objeto o acción artística se desdobla tanto como receptorxs existan.

Por otro lado, no creo que la inocencia sea un foco de atención en el trabajo de Pr0t0colectivo, más bien al contrario. Pretenden despertar en quien visite la instalación, o alguno de los eventos en torno a ella, cierta reflexión acerca de lo que es escuchado y lo que no, acerca de los mecanismos que imponen qué debe ser atendido en un momento dado, dirigiendo hacia dónde debe enfocarse la atención y dejando en los márgenes aquello (humano y no humano) que no sostiene el statu quo.

Sin embargo, su acercamiento a la creación durante el proceso sí tiene algo de inocencia e ingenuidad, al colocarse en un lugar de juego, de probar a ver qué pasa cuando se colocan los artefactos de una forma u otra, de descubrir los sonidos que surgen, de volver a ser unx niñx y divertirse por el mero placer de hacerlo. Creo que eso es algo que no debe perderse nunca en el arte.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

Reflexionando sobre pertenecer justo escucho a Jorge Carrión[1] parafraseando al neurocientífico Marco Iacoboni, hablando sobre las neuronas espejo: parece que éstas crean cierto tipo de intimidad entre el yo y el otro, y que su actividad está vinculada al sentido de pertenencia respecto de un grupo social específico, cuyxs miembros sentimos que son más similares a nosotrxs que otrxs. O sea, las mismas neuronas que son responsables de nuestra empatía, lo son también de ese sentirnos diferentes; empatizamos precisamente porque nos sentimos diferentes.

Pienso en Alba de la Portilla, cuyo trabajo investiga en torno a esa necesidad de pertenecer a algo; ídolos, objetos y toda la cultura visual que rodea a la adolescencia para tratar de situarse en un lugar propio en el mundo. Alba activa directamente objetos y estéticas que, aunque no son suyos, pertenecieron a parientes cercanos cuando éstos tenían la edad que ella tiene ahora. Fotografías y objetos que identifica con ese sentimiento de pertenencia. Alba parece necesitar acercarse a esas raíces, al mismo tiempo que poner distancia, a través de materiales y objetos encontrados que convierte en estructuras duras y frías. Estructuras metálicas como contrapunto a unas imágenes con materiales tan cargados de vivencias y emociones juveniles.



*Sweet INNOCENCE,* Alba de la Portilla

[1]Carrión, Jorge. La banda sonora del amor en “Ecos”: https://caixaforumplus.org/p/la-banda-sonora-del-amor

No hay distancia entre Anne Aramendia y su obra. Ella es su trabajo, y viceversa, y no solo porque se vale de la autorepresentación, sino porque ella misma parece no querer separar ambas cosas. Su trabajo funciona como una continuación natural de sus pensamientos. En su taller hay papeles impresos por todos los lados, pinturas, dibujos, cristales de Swarovski del bazar tirados por el suelo, libros, telas, papeles, fotocopias tiradas…como si el desorden de su taller fuese el reflejo de sus emociones y dudas y esa lucha por encontrarse a sí misma hablando en términos psicoanalíticos (y artísticos[2]), Anne se encuentra en el proceso de "matar al padre", momento de despojarse de la herencia estilística y de las formas de hacer por inercias que en este momento ya no le sirven. Y lo hace a través de todo su cuerpo. Por eso mismo, el resultado sorprende, es fresco y verdadero. Es real, no hay impostura.

Al final, la pertenencia es una idea compleja, donde confluyen procesos neuronales y sociales difíciles de describir. Pertenecer y despertenecer, arraigo y desarraigo forman parte del mismo mecanismo, en el que tanto Alba de la Portilla como Anne Aramendia se enredan, poniendo imágenes a lo que parece indescriptible. Sus aproximaciones, en apariencia distintas, confluyen.



*Fanservice*, Anne Aramendia

[2]Entrevista a Ibon Aranberri "Para crecer como artista tienes que matar al padre" El Pais, 4 marzo de 2004: https://elpais.com/diario/2007/03/04/cultura/1172962803_850215.html

En ese confluir también se sitúa Pr0t0c0lectiv0 en relación a la resonancia que han estado explorando. He percibido durante todo el proceso cómo resuenan entre ellxs a través de su práctica, están en sintonía, tienen una gran afinidad en lo que buscan al mismo tiempo que una singularidad en lo que cada unx aporta al colectivo. Y eso se siente en el resultado.

Un resultado que es móvil, que no va a permanecer estancado tras la colocación de los elementos entre las cuatro paredes del espacio expositivo, sino que va a ir transformándose con el tiempo. Con esa decisión se apartan de las convenciones de las artes visuales y acogen estrategias de las artes en vivo, para plasmar las intersecciones entre unas y otras.

A partir de esta idea de movimiento continuo, van a invitar a diversxs artistas a intervenir la obra en varios eventos abiertos al público, para que dejen su huella en la instalación. Por tanto, la investigación continuará más allá de la puesta en escena y extenderá la red de colaboración de Pr0t0c0lectiv0, algo que les define como colectivo.

Las personas que se acerquen a la exposición en varios momentos diferentes podrán ser testigos, entonces, del proceso de transformación material y acústico de la pieza que han creado. Sabemos cuál es el comienzo de esta no-escultura, que estudia lo in-audible y lo in-atendido y les da un lugar (una escucha y una atención), pero no conocemos todavía sus variaciones y futuras versiones.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

Por nuestra parte, esta experiencia ha resultado un reto enriquecedor, y nos ha servido para ahondar más en el trabajo de estxs artistas y en el modo de relacionarse con él. Ha sido un placer acceder a los talleres de Alba de la Portilla, Anne Aramendia y Pr0t0c0lectiv0 y poder observar la evolución de sus proyectos. Nos quedamos con la sensación de que, además de sus estudios, nos han permitido atisbar sus universos particulares y eso ha ampliado también los nuestros. La exposición que ahora se muestra es producto de estos procesos intensos, cargados de afectividad, cuestionamiento y confrontación.

Producción:
Centro de Arte Contemporáneo de Huarte

Textos:
Nerea de Diego
Elisa Arteta
Les artistas

Imágenes:
Les artistas

DL NA 2405-2023

BY NC SA

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO





# EKOIZTU

2023ko urriak 26tik

2024ko urtarrilak 13ra

Alba de la Portilla
**Sweet INNOCENCE**

Anne Aramendia
***Fanservice***

Pr0t0c0lectiv0
**Resonancias, una simulación del contacto**

2023. urteko lehen erdian, Elisa Artetak eta Nerea de Diegok Ekoiztu egoitzei segizio bat egin diegu, Alba de la Portillak, Anne Aramendiak eta Pr0t0c0lectiv0k garatu dituzten eta orain ikusgai dauden proiektuek osatzen dutena.

Segizioa proiektuak ikuspuntu materialetik ez ezik, alderdi intelektual eta afektiboetatik ere jorratzeko modu gisa ikusten dugu. Helburu honekin, elkarrizketarako, zalantzan jartzeko eta hausnarketarako erreflexu eta metodologia estrategiak proposatzen dituen kanpo-begirada bat eskaini nahi izan dugu, artistek eta gu geuk, laguntzaileek, bakarka eta taldean lan egiten ikasteko. Hilabete hauetan haien ibilbideetan murgildu gara, laguntzeko moduak miatuz.




*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla




*Fanservice*, Anne Aramendia



*Resonancias, una simulación del contacto,*
Pr0t0c0lectiv0

Alba eta Anneren prozesuetan laguntzera gonbidatu zidaten eta urduri nengoen. Haien obra ezaguna zait eta tira dezaketen hari asko izan arren, haien lanetatik ihes egiten didan zerbait dago (haien generazioko artista askoenetatik bezala), eta horrek nire segizioa lagungarria izango ote zitzaien zalantza nuen. Ulertzera iristen ez garen artearen zati hori da erakartzen, nahasten, begiratzera behartzen eta interpelatzen gaituena.

Lehenengo saioa Alba de la Portillarekin izan nuen. Berak ere pixka bat urduri zirudien, baina sentsazioa positiboa izan zen. Bere tailerra objektuz, irudiz eta garapen prozesuan zeuden piezez betea zegoen. Albak lasai, patxadatsu hitz egiten zuen, zer erran pentsatuz eta ordenagailuan edo liburu eta kaxetan erakusten zizkidan irudien bitartez hitz eginez. Proiektuaren une egokian zegoen, bide asko irekita zituela, hartu beharreko erabaki aunitzekin, baina ideia sendo askorekin. Ez berak ez nik kontuan hartu ez genituen auziak azaleratu ziren. Bere familiaz, amaz, osaba-izebez, aitatxiz… hitz egin zidan. Albak indarra hartzeko eusten duen puntua 70, 80 eta 90. hamarkadako iruditeri oso bat da eta familiako argazkien, bere senideen gaztetako gelen dekorazioen, objektuen, aldizkarien, DVDen eta bertze objektu batzuen bidez iristen da bertara. Mekanismo honek erroetan arakatzeko bilaketa identitario bezala funtzionatzen du, bere burua eta ingurukoa ezagutzeko.

“Izateari” buruz hitz egin genuen, nerabezaroan zerbaiten parte izatearen beharraz, idoloen, abeslarien, modeloen eta aktoreen posterren bitartez, baina baita moda eta gorputzaren bidez ere. Bere familiak Nafarrora emigratu zuela erran zidala gogoratzen dut. Albari, nolabait, pertenentzia eta deserrotze terminoek arduratzen diote.




*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla



*Sweet INNOCENCE,*
Alba de la Portilla

Interesgarria da proposatu diguten zeregin honen inguruan zure urduritasuna adieraztea, nik ere intseguritate momentu bat eduki nuela konturatu bainaiz. Hasieran jarduera honekin zirraratuta nengoen, hagitz interesgarria iruditzen baitzait bertze artisten proiektuei kanpo pertzepzio bat ematea, eta soinu artea lantzen duen prozesu bat izanik are gehiago, zoratzen nauen esparrua baita. Soinu azterketa zehazki nire lekua ez izateak Pr0t0c0lectiv0ren prozesuan nire segizioa lagungarria izan zitekeen edo ez zalantzan jartzera eraman ninduen. Taldeak bere lana garatzeko aukera eta prozesuan laguntzeko norbait edukitzearen ondorioz transmititzen zituzten energia eta ilusioak aurreko sentsazio horiek lausotu zituzten.

Pr0t0c0lectiv0 urte batzuk proiektu artistikoak egiten dabiltzan Sonia Ciriza (diseinatzaile grafikoa eta artista), Miguel Ayesa (diseinatzaile grafikoa eta artista), Germán Úcar (diseinatzaile grafikoa eta musikoa) eta Guillermo Mutiloak (musikoa eta produktorea) osatzen duten taldea da. Ez da talde finko bat, bere partaideak aldatzen doaz eta haien ekintza eremua zabala da: ez dira diziplina bakarrean mugitzen, baizik eta momentu bakoitzean interesatzen zaizkien lekuetara hurbiltzeko erraminta ezberdinak miatzen dituzte. *Resonancias, una simulación del contacto* proiektuan, mikrofono eta kontaktu bidezko bozgorailuen (uhinak euskarri materialez transmititzen dituzte, ez airez) bitartez soinu oihartzuna ikertu dute, elementu hauek material ezberdinetan kokatuz. Hasierako esperimentazioa eta gero, estruktura metaliko zilindrikoak erabiltzearen alde egin dute, bisualki alde industrialarekin eta produkzio moduekin lotura sortuz.

Taldearekin izandako lehenengotariko elkarrizketak sorkuntza prozesu batean edukitako gatazka uneekin zuen zerikusia. Maiz sortzen diren blokeo horiek dira konponbide ezberdinak eskaintzen dituztenak, egiten ari garenari eduki eta ezaguera berriak gehituz, norbanakoaren esperientzian eta eraldaketan ere aldaketak eraginez. Hau da, batzuetan artistoi hainbertze zapuzten diguten arazo horiek dira kreatibitatea eta erabakitasuna ahalbidetzen eta sustatzen dituztenak, artea azaleratzen dutenak: estrategia edo xehetasun berri bat, hautematearen hedapena, gauzak egiteko, harremantzeko… mekanismo ezberdin bat. Ordurarte ezezaguna den zerbait aurkitzen den ordezkapenean datza. Hori da artearen potentzial politikoa, korden aurka jartzen dizuten momentuak, zure beldur eta ahulezietara hurbilduz, gainditu eta aurrera jarraitu ahal izateko.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

Erran duzunak Anne Aramendiaren prozesua ekartzen dit gogora. Anne "blokeo momentuan" aurkitu nuen eta erran duzun bezala, ez da negatiboa den zerbait, baizik eta beharrezkoa gauzak birplanteatu, bueltak eman, hausnartu eta indarrak berritzeko. Anne krisi pertsonal naiz artistikoan zegoen, ez baitzegoen bien arteko inolako bereizketarik. Pinturatik, bera erraztasunez eta arintasunez moldatzen den esparrua, deserrotzeko eta horren "parte izateari uzteko" prozesuan aurkitzen da. Familiako legatu piktorikotik urruntzeko beharra sentitzen du, bere bidea marratzekoa, bertze bat. Kontrolatzen ez duen eta paralizatzen dion bilaketa horretan ariketa interesgarriak agertzen dira. Ana Laura Alaézi, generoaren errepresentazioari eta sexualitateari buruz hitz egiten dugu. Annek genero ez-binarioari buruz mintzatzen dit, baina nik, aldiz, gorputz feminizatu bat bezala autoerrepresentatzen dela ulertzen dut – berriz ere artista gazteenetatik ihes egiten dizkidaten gauzak badirela sentitzen dut, eskuratu ezin dudan eta horregatik interesatzen zaidan perspektiba aldaketa bat –. Jolasten duen, aurre egiten duen, gustatzen den, makilajearen, Swarovski kristalez egindako bularretakoen, pikardien edo paramenten erabileraren bidez berresten den gorputza da Annerena.

Albak *Sweet INNOCENCE* proposamenean tolesgabetasun goxoari modu ironiko batean ekiten dion bezala, Annek, *Fanservicen*, tolesgabetasunaren errepresentazioarekin jolasten du, bat ere xaloa ez den jolas bikoitz batean, ezinbertzean Nabokoven Lolitaren irudia burura ekarriz.

"Cuando sueño que bajo por la calle dos de mayo hacia el bar Nervión y al llegar le soplo una hostia a A. y a C., no encuentro placer en que esto se celebre. Paso de que a la gente le parezca algo que alguien debía hacer. En plan, dios, ya era hora. Después de esto yo sueño que viene la policía y me detienen. Por cierto, en ese momento estoy guapísima. No busco aprobación, busco mearme fuera del tiesto. Perder los papeles. La convención está para mí en soportar y callar. Modo supervivencia. Y yo tengo ansias de vivir. No creo que el golpe suponga nada, ni A., ni C., ni la policía; el vestido rosa y las botas de serpiente sí. Podría cambiar a A. por un muñeco, no sería la primera vez. Quiero liarla y que hablen mal de mí. Quiero ser ejecutora de algo malvado. Vivir la culpabilidad por fin, sabiendo que he hecho algo malo con la energía de un bofetón. Arrancarle la polla con los dientes a los dos y que por fin la gente respire tranquila porque después de eso ya no hay vuelta atrás para mí. Ya no seré la misma, pero tampoco arrancar pollas con los dientes será convención. No será mi show, ni tendré colas de hombres cis esperando a que les corte el pene. Nadie lo deseará nunca, yo lo haré porque no desean que sea yo quien lo haga. Seré constantemente la liadísima. Pero no seré Anne la liada, seré todos los días Anne la que la lió (como si todos los días fuera la primera vez que tomo consciencia del dolor y lo hago)."

*sobre un mal sueño* testuaren zatia
Anne Aramendia, 2023



*Fanservice*, Anne Aramendia

Pr0t0c0lectiv0ren kasuan ere aipatzen duzun “parte izateari uzte” horren inguruan eztabaida bat egon da, baina bertze hitz batzuekin. Germánek, bereziki, eskulturaren alorrari ez atxikitzeko beharra sentitzen zuen, berarentzako nahasi nahi ez zituen konnotazio batzuk dituelako. Miguelentzako, aldiz, ez zegoen inolako arazorik lana modu horretan izendatzearekin, nahiz eta esplorazioa gehien bat soinuduna izan.

Talde bat izatean, hautemateak eta elkarrekintzak aldatuz zihoazen kide batetik bertzera gai ezberdinen inguruan mintzatzen gindoazela, eta horrek prozesua aberasten zuen.  Deigarria da terminologia kontuetan batzuetan ados jarri ez arren, materia ekoizpenean ez zegoela iritzi ezberdintasun haundirik eta prozesua hagitz erraza izan dela.

Azkenean denak zerikusia du gauzetan proiektatzen den begirada eta interpretazio pertsonalarekin, eta kasu askotan zaila izaten da ideia, ikur edo erranahi bat orokortzea, objektu edo akzio bakoitza dauden hartzaile kopuru aina zabaltzen baita.

Bertze aldetik, ez dut uste tolesgabetasuna atentzio puntu bat denik Pr0t0c0lectiv0ren lanean, kontrakoa baizik. Instalazioa edo bere inguruko gertaeraren bat bisitatzen dutenengan nolabaiteko hausnarketa bat piztu nahi dute, entzuna denaren edo ez denaren, momentu jakin batean aintzat hartua zer izan behar den inposatzen duten mekanismoen inguruan, arreta nora zuzendu behar den bideratuz eta statu quoa eusten ez duen hori (gizatiarra eta ez gizatiarra) alde batera utziz.

Hala eta guztiz ere, prozesuan zehar sorkuntzarako hurbilketak inozentzia eta xalotasun puntu bat du; jolas toki batean kokatzea, tresnak modu batean edo bertzean jartzean ze gerta daitekeen probatzea, sortzen diren soinuak deskubritzea, haurra izatera bueltatzea eta plazer hutsagatik dibertitzea. Artean inoiz ere galdu behar ez den zerbait dela uste dut hori.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

“Parte izatearen” inguruan hausnartzen ari naizela, Jorge Carrión[1] Marco Iacoboni neurozientzialaria parafraseatzen entzun dut, ispilu-neuronei buruz: neurona hauek nia eta bertzearen artean nolabaiteko intimitatea sortzen dutela dirudi, eta haien jarduera talde sozial jakin baten parte izateari lotua dagoela, bertako kideek bertzeek baino gure antzekotasun handiagoa dutela sentiaraziz. Gure enpatiaren arduradunak diren neurona horiek bera dira ezberdin sentiarazten gaituztenak; desberdinak sentitzen garelako, hain zuzen ere, enpatizatzen dugu.

Alba de la Portilla dut gogoan, bere lanak zerbaiten “parte izatearen” beharraren inguruan ikertzen duela: idoloak, objektuak eta nerabezaroa inguratzen duen kultura bisual guztia, munduan leku propio batean kokatzen saiatzeko. Albak bereak ez diren baina bere hurbileko senideek bere adina zutenean zituzten objektu eta estetikak aktibatzen ditu. “Parte izate” sentimendu horrekin identifikatzen dituen argazki eta objektuak. Albak erro horietara hurbiltzeko beharra duela ematen du, distantzia mantenduz aldi berean, egitura gogor eta hotz bihurtzen dituen aurkitutako material eta objektuen bidez. Egitura metalikoak, gaztarako bizipen eta emozioez beteriko materialekin egindako irudien kontrapuntu gisa.



*Sweet INNOCENCE,* Alba de la Portilla

[1]Carrión, Jorge. La banda sonora del amor en “Ecos”: https://caixaforumplus.org/p/la-banda-sonora-del-amor

Anne Aramendia eta bere obraren artean ez dago distantziarik. Bera da bere lana, eta alderantziz; ez autoerrepresentazioaz baliatzen delako bakarrik, berak bi gauzak banatu nahi ez dituela dirudielako baizik. Bere lanak bere pentsamenduen jarraipen natural gisa funtzionatzen du. Bere tailerrean inprimitutako paperak daude alde guztietatik, margoak, marrazkiak, bazarreko Swarovski kristalak lurretik botariak, liburuak, oihalak, paperak, botatako fotokopiak… tailerreko nahas-mahasa bere emozio eta zalantzen eta bere burua aurkitzeko borrokaren isla izango balitz bezala. Termino psikoanalitikoetan (eta artistikoetan[2] ) hitz eginez, Anne erdaraz erraten den “matar al padre” prozesuan aurkitzen da, herentzia estilistikoa eta inertzien bidez egiteko moduak alde batera uzteko unean, jada ez baitiote balio. Bere gorputz guztiaren bidez egiten du eta horregatik harritzen du emaitzak, freskoa eta egiazkoa delako. Erreala da, ez dago engainurik.

Azken batean, “parte izatea” ideia konplexua da, non deskribatzeko zailak diren prozesu neuronal eta sozialak bat egiten duten. “Parte izatea” eta “parte ez izatea”, errotzea eta deserrotzea mekanismo berdinaren parte dira, Alba de la Portilla nahiz Anne Aramendia bertan korapilatuz, deskribaezina dirudienari irudiak jarriz. Haien hurbilketak, itxuraz ezberdinak, elkartu egiten dira.



*Fanservice*, Anne Aramendia

[2] Ibon Aranberriri elkarrizketa “Para crecer como artista tienes que matar al padre” El Pais, 2004ko martxoaren 4a: https://elpais.com/diario/2007/03/04/cultura/1172962803_850215.html

Bat egite horretan kokatzen da Pr0t0c0lectiv0 ere, miatzen egon diren oihartzun horri dagokionez. Prozesu osoan zehar sumatu dut nola durundatzen duten haien artean haien praktikaren bidez; harmonian daude, bilatzen dutenean kidetasun haundia dago eta aldi berean bakoitzak taldeari berezitasun puntu bat ematen dio. Eta hori bukaerako emaitzan antzeman daiteke.

Mugikorra den emaitza, erakusketa eremuko lau pareten artean elementuak kokatu eta gero geldirik egon behar ez dena, denborarekin transformatuz joanen dena. Erabaki horrekin ikusizko arteen ohituretatik urrundu eta arte bizien estrategiak hartzen dituzte, bata bertzeen elkarrekintzak irudikatzeko.

Etengabeko mugimendu honen ideiatik abiatuta, publikoarentzat irekita egonen diren hainbat ekitalditan zenbait artista obran esku hartzera gonbidatu behar dituzte, instalazioan haien aztarna utzi dezaten. Beraz, ikerketak taularatzetik harago jarraituko du eta Pr0t0c0lectiv0ren lankidetza sarea zabalduko du, talde gisa definitzen dien hori azpimarratuz.

Erakusketara zenbait alditan hurbiltzen den jendea talde honek sortu duen piezaren materia eta soinu eraldaketa prozesuaren lekuko izan daiteke. Entzun ezin daitekeena eta kasurik egiten ez zaiona ikertu eta leku bat (entzunaldi eta arreta une bat) ematen dien eskultura-ez honen hasiera zein den badakigu, baina oraindik ez ditugu ezagutzen bere aldaketak eta etorkizuneko bertsioak.



*Resonancias, una simulación del contacto,* Pr0t0c0lectiv0

Gure partetik, esperientzia hau erronka aberasgarria izan da guretzat, artista hauen lanean eta honekin harremantzeko duten moduan gehiago sakontzeko balio izan baitigu. Plazer bat izan da Alba de la Portillaren, Anne Aramendiaren eta Pr0t0c0lectiv0ren tailerretan sartu eta haien proiektuen garapena behatu izana. Haien estudioez gain, haien unibertso partikularrak ikuskatzea utzi diguten sentsazioarekin gelditzen gara, honek gure unibertsoak ere zabaldu baititu. Orain ikusgai dagoen erakusketa gogorra izan den eta afektibitatez, eztabaidatzez eta konfrontazioz beteriko prozesuen emaitza da.

Ekoizpena:
Uharteko Arte Garaikideko Zentroa

Testuak:
Nerea de Diego
Elisa Arteta
Artistak

Irudiak:
Artistak

LG NA2405-2023

BY NC SA

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO